



Iruñeko Udala, 2018



2019ko abendua



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA	3
I. SARRERA	5
II. UDALA	6
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	11
IV. IRITZIA	12
IV.1. Udalaren 2018ko Kontu Orokorrari buruzko finantza-iritzia	13
IV.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia	13
V. EGOERA-ORRI FINANTZARIO BATERATUAK	15
V.1. 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua	15
V.2. 2018 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza	15
V.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2018ko abenduaren 31n	16
V.4. 2018ko abenduaren 31ko balantze-egoera bateratua	17
VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	18
VI.1. Iruñeko Udalaren aurrekontu orokorra	18
VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2018-12-31n	19
VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea	20
VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena	22
VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak	23
ERANSKINA: IRUÑEKO UDALAREN URTEKO KONTU BATERATUEN OROITIDAZKIA, 2018KO ABENDUAREN 31RI DAGOKIONA	53





Laburpen exekutiboa

Iruñeko Udalaren 2018ko ekitaldiko kontuei eta kudeaketa finantzarioari buruz Kontuen Ganbera honek egindako azterketaren laburpen gisa, honako gai hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 2018ko ekitaldiko finantzen egoera-orriek, oro har, eragiketen osotasuna islatzen dute, aplikatzekoak diren kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioei jarraituz.

- Udalaren 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoera egonkorra eta saneatua da, haren adierazle ekonomiko eta finantzario nagusiek agertzen duten bezala. Adierazle horiek hobera egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

- Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren esparruko arau fiskalak bete dira.

- “Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL” izeneko merkataritza-sozietatea sortu da, zeinean Iruñeko Udalarena baita partaidetza osoa. Merkataritza Erregistroak ukatu egin du inskripzioa, ekonomia- eta finantza-plan bat indarrean dagoelako eta, beraz, ez duelako betetzen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria.

- Beharrezkoa da Udalaren barne-kontrolako sistema indartu dezagun, aztertuz araubide orokor gisa aurretiazko fiskalizazio osoa ezartzea, eta aldez aurreko fiskalizazio mugatua araubide berezi gisa utziz izaeraren edo zenbatekoaren arabera arlo edo/eta gastuetan. Horretarako, gomendagarria da prozedura informatiko eta estandarizatu bat diseinatzea, txosten-txantiloiekin, fiskalizazio-lanei arintasuna emateko.

Horrela, egiten ari ez diren eta legezko eskakizunen arabera fiskalizatu behar diren barne-kontrolako lanak zaindu eta areagotuko lirateke.

- Langileei dagokienez, udaleko lanpostu hutsak plantillaren ehuneko 44 dira, eta horietatik ehuneko 81 aldi baterako okupatuta daude. 2018ko lan-eskaintza publikoaren behin-behinekotasuna soilik birjartze-tasaren arabera murrizten da, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriaren aukerak kontuan hartu gabe. Hala ere, berrezarpen-tasen zenbaketak Estatuko aurrekontu orokorren urteko legeetan ezarritako mugak errespetatu behar ditu.

- Langile funtzionarioen eta lan-kontratupekoen akordio kolektibo indardunak Foru Komunitatean langileei aplikatzeko zaien araudian jasotakoa gainditzten duten eta hartatik bereizten diren zenbait ordainsari-kontzeptu eta -kasu jasotzen ditu.





- Kontratazio-prozedurak, oro har, kontratu-esparruaren araberakoak badira ere, gure ustez beharrezkoa da Udalak bere plangintza hobetu dezan, horrela honako hauek saihesteko, besteak beste:

- a) Aurreko adjudikazio-hartzaileak zerbitzuak ematen jarraitzea, kontratuen indarraldia amaitutakoan.

- b) Kontratuen hasierako lizitazioaren unean aurreikusita egon beharko luke-ten inguruabarren ondoriozko kontratuen aldaketen geroko izapidetzea.

- c) Era berean, fakturen izapideak azkarrago egitea lortu behar da, hornitzaileei ordaintzeko araudian aurreikusitako gehieneko epea betetze aldera.

- Osoko balorazio txostenak onartzeke jarraitzen du. Kontuen Ganberak behin eta berriz gomendatu du hura onets dadin.





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2019rako jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, Iruñeko Udalaren datu esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, gure fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen ditugu; laugarrenean, Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorri buruzko gure finantza-iritzia eta legezketasuna betetzeari buruzko gure iritzia ematen ditugu; bosgarrenean, berriz, kontu horren laburpena ematen dugu. Seigarren atalean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2018ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak egindakoa, erantsi dugu.

Azterketa lana 2019ko ekaina eta urria bitartean egin du auditoriako bost teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa horren emaitzak Iruñeko Udaleko alkateari eta alkate ohiari jakinarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zituzten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.





II. Udala.

Iruña udalerrri bat da, 2018ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 199.066 biztanle zituen eta 25,1 Km²-ko azalera duena.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organoek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

2018an, Udalaren egitura administratiboa 11 alorrek osatzen dute, Alkatetza barne. Alor horiek, Alkatetza izan ezik, hamar zuzendarik eta hamar idazkari teknikok zuzentzen dituzte.

Udalak honako ente hauek dauzka zerbitzu publikoak kudeatzeko:

- Erakunde autonomoak:

- a) Udalaren haur eskolak, haur eskolen zerbitzuaren kudeaketarako.

- b) Hirigintzaren Udal Gerentzia, Iruñeko udalerrriaren hirigintzaren kudeaketarako.

- Merkataritza-sozietateak: Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauek:

Enpresa	Partaidetzaren portzentajea	Helburu soziala
Comiruña SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico SA (PCH SA)	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Asociación Navarra de Informática Municipal SA (Animsa)	77,69	Udal informatika.
Mercairuña SA	51	Handizkako merkatuak
Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL	100	Energiaren salerosketa

Merkataritza-sozietateei dagokienez, honako hau esan beharra dago:

2018ko maiatzaren 28an, Merkataritza Erregistroan inskribatu ziren Asimec SA merkataritza-sozietatearen desegitea eta likidazioa, sozietatearen Batzar Orokorrak 2017ko maiatzean hartutako erabakia betez. Erabaki hori Iruñeko Udalbatzak 2016ko abenduan erabaki zuen etxez etxeko arreta-zerbitzua (aurre-rantzean, ELZ) udalekotzearen ondorioa da. Erabaki horren bidez, zerbitzu hori kudeaketa zuzenaren bidez ematea onetsi zen, toki-erakundeko bertako langile eta bitartekoekin, eta horrek sozietate hori azkentzea ekarri zuen.

- b) 2018ko ekainaren 7an, Udalaren osoko bilkurak merkataritza-sozietate berri bat eratzea onartu zuen, "Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL" izenakoa, eta haren estatutuak. Sozietatearen xedea iturri berriztagarrietako energia elektriko iraunkorra ekoiztea eta merkaturatzea da.





Oroitidazkian adierazten denez, sozietate hori ez da kontuan hartu finantzen egoera-orriak bateratzerakoan, ez baitu jarduerarik izan 2018ko ekitaldian.


- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina, Ganbera honen ustez, fundazio pribatu bat da.





Grafikoki, honako hau da egitura indarduna:



⁽¹⁾ Alkatezaren Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa, Administrazioaren Koordinazio Teknikoa —Udal Gerentzia eta Bulego Estrategikoa— daude haren pean



Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2018ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren sektore publikoa.

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2018/12/31n
Udala	207.276.003	202.332.904	1.564
Hirigintzako Gerentzia	7.668.084	4.296.197	29
Haur eskolak	9.236.375	8.215.647	209
-Bateratzearen doitzak	-10.857.750	-10.857.750	
Guztira	213.322.712	203.986.998	1.802

2018an, Udalak 7.519.964 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 3.335.351 euroko ekarpena, berriz, Hirigintzako Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak.

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Batez bestekoa langileak
Comiruña SA	507.465	383.709	123.756	6
Mercairuña SA	1.283.868	1.094.253	189.615	12
Asociación Navarra de Informática Municipal SA	6.988.172	6.952.503	35.669	108
Pamplona Centro Histórico SA	3.348.761	3.222.549	-126.212	4
Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SA	-	-	-	-

- Fundazioak.

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatuen batez besteko kopurua
Gayarre Antzokia	2.259.507	2.259.825	-318	15
Erruki Etxea	21.164.814	18.648.199	2.516.614	218

Azaldutakoaz gainera, esan beharra dago Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea dela, eta haren bidez kudeatzen dituela uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia). 2018ko ekitaldian, 2.492.168 euro ordaindu ditu Udalak eskualdeko hiri garraioko zerbitzuagatik.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Udalari 2018an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.





- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
 - 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, kontratu publikoei buruzkoa.
 - 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa kontratu publikoei buruzkoa.
 - 8/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa Nafarroako poliziei buruzkoa.
 - 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako poliziei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.
 - Indarra duen gainerako araudi sektoriala.





III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Fiskalizazio honen helburua honako gai hauei buruzko iritzia ematea:

- Ea 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten duen, 2018ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, aplikatzen den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea 2018ko ekitaldian Udalak eta haren erakunde autonomoek egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

- Ea 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

Aurreko iritzia emateaz gain, honako hauek berrikusi ditugu gure lanean:

- Ea 2018ko aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak bete diren.

- Nafarroako Polizien Sindikatu Independentearen eskaera bat, gastu-partida jakin batzuei buruzkoa.

Fiskalizazioaren irismena Iruñeko Udalaren 2018. urteko Kontu Orokorra da, zeina honela osatuta baitago Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren arabera:

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontua, honako hauek osatua:


- a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.
- b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galdu-irabazien kontuak osatzen baitute.
- c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontuaren eranskinak.

- Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietateen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak.

Halaber, kanpoko profesionalek erakunde autonomoetan, enpresa publikoetan, Gayarre Antzokiaren udal fundazioan eta Erruki Etxean egindako auditoriak aztertutako dira.





IV. Iritzia

Iruñeko Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko azaroaren 14an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Kontu Orokorra egiteko erantzukizunaz gainera, Udalak bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta Horretarako, aipatutako fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek dituzten oinarritzko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazki, “Fiskalizazio Finantzarioaren Oinarritzko Printzipioak” izeneko ISSAI-ES 200 delakoak ezartzen ditueni eta “Fiskalizazioaren Oinarritzko Printzipioak” izeneko ISSAI-ES 400 delakoak ezartzen ditueni jarraituz. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haie-tan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta Kontu Orokorrean adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskua-ren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrek akats





materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

IV.1. Udalaren 2018ko Kontu Orokorrari buruzko finantza-iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Balantzean ez da erregistratu udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko etorkizuneko betebeharren hornidura. Udalak 2009an azterlan aktuarial bat egin zuen pentsio horiei buruz, eta urtean 22,1 milioiko batez bestekoa kalkulatu zuen 2018tik 2019ra doan aldirako.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, Udalaren ondareari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. Legezkoitasuna betetzeari buruzko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Merkataritza-sozietate bat eratzea onetsi da —haren kapitalaren partaidetza osoa Udalak izanen du—, eta 123.000 euroko ekarpenak egin dira, hartara Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean aurreikusitakoa bete gabe; izan ere, Udala 2018-2019 aldirako Ekonomia eta Finantza Planaren indarraldiaren mende egon da 2018an.





- 282.063 euroko ordainsariak ordaindu dira, honako honen onespenean oinarrituta: “Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2017-2019 urteetarako akordioa”. Halere, klausula batzuek lege-esparrua gainditzen dute.

- Udalaren eta haur-eskolen erakunde autonomoaren lan-eskaintza publikoek gainditu egin dituzte 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikuluan ezarritako berrezarpen-tasen mugak, hiru eta bi plazatan, hurrenez hurren.

- Pio XII.aren etorbideko bideak eraberritzeko obren lizitazioa ondorengo zehaztapenak behar zituen proiektu batean oinarrituta egin zen, eta horrek aldatu ekarri zizkion hasierako proiektuari. Horren ondorioz, obra-kontratua ehuneko 22an aldatu zen, pleguetan jaso gabe, eta ezarritako legezko muga ehuneko bi gainditu zen. Era berean, kontratua ez zuten ebatzi, aipatutako muga gainditu arren.

- 2.207.225 euro ordaindu dira hainbat kontratu amaitu ondoren egindako zerbitzu-prestazioengatik.

- Aurretiazko esku-hartze mugatuak ez ditu betetzen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen aurreikuspenak, arrazoi hauengatik:

- a) Osoko Bilkurak ez ditu zehaztu kudeaketa-prozesuan garrantzia duten alderdiak.

- b) Ez da egiten aurretiazko esku-hartze mugatua eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gaineko ondorengo esku-hartze osoa.

Iritzia

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, eta berrikusitako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2018ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantziko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.



**V. Egoera-orri finantzario bateratuak****V.1. 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua
(Udala eta erakunde autonomoak)****Gastu-aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa**

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordainkizun dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Langile-gastuak	1	92.882.886	1.997.000	94.879.886	93.873.221	93.707.882	165.339	99	46
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	74.417.824	1.082.921	75.500.745	72.818.660	61.108.744	11.709.917	96	36
Finantza-gastuak	3	1.678.600	18.000	1.696.600	660.405	660.405	0	39	0
Transferentzia arruntak	4	12.340.744	-329.585	12.011.159	11.598.150	9.600.177	1.997.974	97	6
Kontingentzia funtsa	5	50.000	0	50.000	0	0	0	0	0
Inbertsio errealak	6	17.180.591	8.486.631	25.667.222	15.042.776	8.678.004	6.364.771	59	7
Kapital-transferentziak	7	2.396.000	-590.000	1.806.000	1.036.356	725.160	311.196	57	1
Finantza-aktiboak	8	397.200	0	397.200	159.905	109.349	50.556	40	0
Finantza-pasiboak	9	8.816.000	0	8.816.000	8.797.524	8.797.524	0	100	4
Gastuak, guztira		210.159.845	10.664.967	220.824.811	203.986.998	183.387.245	20.599.753	92	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Zuzeneko zergak	1	53.836.000	0	53.836.000	55.474.256	51.584.523	3.889.733	103	26
Zeharkako zergak	2	6.073.573	0	6.073.573	9.607.382	7.007.304	2.600.078	158	5
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	3	28.933.600	0	28.933.600	32.794.779	28.852.262	3.942.517	113	15
Transferentzia arruntak	4	100.623.408	466.000	101.089.408	102.069.730	101.236.996	832.734	101	48
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.930.500	0	2.930.500	2.760.054	2.167.985	592.069	94	1
Inbertsio errealen besterentzea	6	4.297.000	0	4.297.000	5.416.301	5.416.301	0	126	3
Kapital-transferentziak	7	4.262.564	640.000	4.902.564	5.020.563	3.961.810	1.058.752	102	2
Finantza-aktiboak	8	387.200	9.558.967	9.946.167	179.647	87.630	92.017	2	0
Finantza-pasiboak	9	8.816.000	0	8.816.000	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		210.159.845	10.664.967	220.824.811	213.322.712	200.314.812	13.007.901	97	100

**V.2. 2018 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza
(Udala eta erakunde autonomoak)**

Kontzeptua	2017ko ekitaldia	2018ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	198.960.850	213.322.712
Aitorturiko betebeharrak garbiak	-199.620.015	-203.986.998
Aurrekontu-emaitza	-659.165	9.335.714
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-2.885.470	-3.964.214
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	1.701.280	713.809
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	10.490.115	4.387.898
Aurrekontu-emaitza doituak	8.646.760	10.473.207





V.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2018ko abenduaren 31n (Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	Ekitaldia 2017	Ekitaldia 2018	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	25.901.587	23.770.057	-8
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	9.473.608	13.077.119	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	30.493.965	27.587.138	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.478.806	72.796	
(+) Ordainketen itzulketak	124	124	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-16.510.337	-16.953.826	
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-34.579	-13.293	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-33.500.549	-33.160.457	-1
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-21.925.422	-20.599.753	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-3.758.581	-3.682.255	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-7.693.298	-8.698.854	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-129.624	-186.571	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	6.376	6.976	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	47.124.899	53.922.464	14
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	21.249.244	21.253.675	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	60.775.181	65.785.739	8
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	19.328.553	22.423.869	16
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	26.335.989	28.072.795	7
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	15.110.639	15.289.075	1





V.4. 2018ko abenduaren 31ko balantze-egoera bateratua

(Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA eta Asistencia Municipal en Casa SA* udal enpresak)

Deskribapena	Zenbatekoa, itxieran 2017. urtea	Zenbatekoa, itxieran 2018. urtea	Deskribapena	Zenbatekoa, itxieran 2017. urtea	Zenbatekoa, itxieran 2018. urtea
A IBILGETUA	1.226.138.276	1.214.020.964	A FUNTS BEREKIAK	1.222.918.483	1.224.184.407
1 Ibilgetu materiala	535.303.288	539.883.480	1 Ondarea eta erreserbak	785.248.776	802.176.463
2 Ibilgetu ez-materiala	22.616.327	22.663.227	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	17.103.619	0
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	659.205.441	642.936.861	3 Kapitaleko dirulaguntzak	420.566.088	422.007.944
4 Herri-ondasunak	0	0	B ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0	0
5 Finantza-ibilgetua	9.013.220	8.537.396	4 Hornidurak	0	0
B ZENBAIT EKIT. BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	0	C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	70.736.977	65.631.619
6 Kitatu beharreko gastuak	0	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	70.736.977	65.631.619
C ZIRKULATZAILEA	103.138.330	110.954.857	D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	35.621.146	35.159.795
7 Izakinak	11.478.528	9.264.094	5 Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	35.586.567	35.146.502
8 Zordunak	42.721.226	40.972.091	6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	34.579	13.293
9 Finantza-kontuak	48.924.068	55.976.659			
10 Finantzaketa-egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	14.508	15.581			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	4.726.432			
Aktiboa, guztira	1.329.276.606	1.324.975.820	Pasiboa, guztira	1.329.276.606	1.324.975.820

* 2017an existitzen zen sozietatea, 2018an jada existitzen ez dena





VI. Konklusioak eta gomendioak

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. Iruñeko Udalaren aurrekontu orokorra

Udalaren eta haren erakunde autonomoek 2018rako zeukaten hasierako aurrekontu bateratuak agertzen zituen diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak 210,16 milioi eurokoak ziren.

10,66 milioi euroko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko bost egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuak 220,82 milioi eurokoak dira.

Aurrekontuaren likidazioa

2018an, gastuek 203,99 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila ehuneko 92koa eta ordaintze-maila ehuneko 90koa izan dira. Gastuak 2017koak baino ehuneko 2,19 handiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 213,32 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, eta betetze- eta kobratze-mailak ehuneko 97 eta 94koak izan ziren, hurrenez hurren. Kasu honetan, 2017koekiko igoera ehuneko 7,22koa izan da.

Laburbilduz, Udalak 2018an gastatutako 100 euro bakoitza honako hauetara bideratu ziren eta honela finantzatu ziren:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantza iturria	Ehunekoa
Langileak	46	Tributu bidezko diru-sarrerak	41
Bestelako gastu arruntak	42	Transferentziak	50
Inbertsio errealak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	9
Kapital-transferentziak	1		
Finantza-pasiboak eta -aktiboak	4		

Ondoren, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

	2017	2018	Aldea (%)
Diru-sarrerak, guztira	198.960.850	213.322.712	7
Gastuak, guztira	199.620.015	203.986.998	2
Diru-sarrera arruntak	191.069.323	202.706.201	6
Funtzionamendu gastuak	168.545.487	178.290.031	6
Kapitaleko diru-sarrerak	7.723.013	10.436.864	35
Kapitaleko gastuak	16.266.257	16.079.132	-1





Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018ko guztizko diru-sarrerak 213,32 milioi eurokoak izan dira, eta 14,36 milioi euro handitu dira; horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko ehuneko zazpiko igoera gertatu dela. Haien izaerari erreparatuta, hazkundea gertatu da bai diru-sarrera arruntetan, bai kapitalekoetan ere. Nabarmentzekoa da kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 35 handitu direla, diru-sarrera arruntak ehuneko sei handitu diren bitartean. Hala eta guztiz ere, kopuru absolutuetan igoerarik handiena diru-sarrera arruntena da, 11,64 milioi eurokoa izan baita, kapitaleko diru-sarrerak 2,71 milioi euro handitu diren bitartean.

- 2018ko guztizko gastuak 203,99 milioi eurokoak izan dira, eta 4,37 milioi euro handitu dira; horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko ehuneko biko igoera gertatu dela. Haien izaerari erreparatuta, igoera funtzionamendu gastuetan gertatu da, 9,74 milioi euro handitu baitira; horrek, izan ere, ehuneko seiko igoera adierazten du. Hala eta guztiz ere, finantza-pasiboengatikoko gastuak 4,83 milioi euro jaitsi dira aurreko ekitaldiarekiko, eta hartara aurrez aipatutakoaren igoera konpentsatu da.

VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2018-12-31n

Ondoren, 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017	2018	Aldea (%) 2018/2017
Aurrezki gordina	22.523.838	24.416.170	8
Finantza-zama	14.628.256	9.457.930	-35
Aurrezki garbia	7.895.581	14.958.240	89
Aurrekontu-emaizta doitua	8.646.760	10.473.207	21
Finantza-zamaren adierazlea	% 8	% 5	-39
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoa	% 12	% 12	0
Zorpetze-ahalmena (%)	% 4	% 7	79
Zorra, guztira	72.354.390	68.956.866	-5
Biztanle bakoitzeko zorra	367	346	-6
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	15.110.639	15.289.075	1

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Lehen aztertutako funtzionamendu-gastuen aldean, diru-sarrera arruntek kopuru absolutuetan izan duten igoerarik handiena aurrezki gordinarena izan da, 1,89 milioi eurotan handitu baita; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko zortzi igo da. Bestalde, finantza-zama 5,17 milioi euro murriztu izanak aurrezki garbia ehuneko 89 handitzen lagundu du, hau da, 7,06 milioi euro aurreko ekitaldiarekin alderatuta.





- 2018. urtean zorpetzeko ahalmena ehuneko 79 handitu da, aurrezki gordina handitu delako eta finantza-zama murriztu delako. 2018an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, finantza-zama murriztu zen 4,96 milioi euroko amortizazio aurreratua egin zelako 2017an, bai eta Hirigintzako Gerentziak ekitaldi horretan egindako zorra birfinantzatu zelako ere.

2018an, Udalak, aurreko ekitaldian bezala, ez du mailegu berririk kontratatu.

- Arriskuen kalifikaziorako agentzia batek 2017ko ekitaldian eman zuen kredituen kalifikazioa, “A-” mailakoa, mantendu du, perspektiba iraunkorarekin; horrek esan nahi du interesak eta printzipala ordaintzeko gaitasun egokia badagoela.

- Nabarmentzekoa da aurrekontu-emaitzak 1,83 milioi euro egin duela gora, hau da, % 21 aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 15,29 milioi eurokoa izan da itxieran, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko bat igo da. Horri esker, etorkizuneko ekitaldietan aurrekontu-aldaketak finantzatu ahal izanen dira.

Azken batean, egoera finantzarioari dagokionez, Udalak funtzionamendugastuak estaltzeko behar adinako finantzaketa jasotzen du diru-sarrera arrunten bitartez; horrek aukera ematen dio aurrezki gordin positiboa izateko eta finantza-zama bere gain hartzeko; horren emaitza, aurrezki garbi positiboa da. Adierazle horiek, bai eta aurrekontu-emaitza doitua eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina ere, igo egin dira aurreko ekitaldikoekin alderatuta.

VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionaleko irizpideak jarraituta, honako enteak jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera, erakunde autonomoak (Hirigintzako Gerentzia eta haur eskolak), merkatukoak ez diren udal sozietateak¹ (Pamplona Centro Histórico SA eta Animsa) eta Gayarre Antzokia Fundazioa.

¹ Ente bat merkatukoa dela ulertzen da haren produkzioa ekonomikoki aipagarriak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.





Administrazio publikotzat hartutako entitateek honako datu hauek izan dituzte:

- Aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak:

a) 14,82 milioi euroko finantzaketa-ahalmena sortu dute.

Finantzaketa-ahalmena

	Zenbatekoa, 2018
Finantzaz besteko diru-sarrerak	236.355.202
Gastu ez-finantzarioak	217.143.327
Saldo ez-finantzarioa	19.211.875
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-6.311.374
Europar Batasunaren dirulaguntzak	94.952
Transferentzien bateratzea	-428.929
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatik hartzekodunak	-105.153
Geroratutako ordainketa	293.721
Kontabilitate-sortzapeneko aldeak*	2.353.396
Kontabilitate-aldeengatik doikuntzak**	-290.555
Finantzaketa-ahalmena	14.817.933

* Montepioaren diru-sarreraren itzulketari dagokio (2.353.396 euro). Zenbateko hori aurrekontuan gastu gisa kontabilizatu da 2018an, baina dagoeneko deskontatu da 2017an finantzatzeko gaitasunetik.

** Udalari igorritako urbanizazio-kuotak dira, eta Hirigintzako Gerentzian sarrera gisa aitortuta daude, baina ez Iruñeko Udalean gastu gisa.

b) 2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 5,8 milioi euro txikiagoa da gastuaren gehieneko muga baino; horrekin, gastu-araua betetzen da, ez baita 2018rako baimendutako ehuneko 2,4ko aldaketa-tasa gainditzen.


Gastu-araua

	Zenbatekoa, 2018
2017ko gastu konputagarri bateratua	167.524.038
% 2,4ko igoera	4.020.577
Diru-sarreraren handitzea arau-aldaketen ondorioz	1.406.585
2018rako aurreikusitako gastu-muga	172.951.200
2018ko gastu konputagarri bateratua	167.147.019
2018ko gastuan izandako desbideratzea	-5.804.181

2018ko aurrekontuaren likidazio bateratuak superabita utzi du agerian finantzaketa-ahalmenari eta gastu-araua betetzeari dagokienez, eta horrek esan nahi du bete egin direla bai aurrekontu-egonkortasunaren esparruko arauak, bai 2018-2019 aldirako "Plan ekonomiko-finantzarioa"², zeina 2017ko likidazioan gastu-araua ez betetzeagatik onetsi baitzen.

² Plan ekonomiko-finantzarioa 2018ko uztailaren 3an onetsi zuen Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak, eta, ondoren, Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak 2018ko uztailaren 31n onetsi zuen.





- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa:

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, zorpetzea diru-sarrerara arrunten ehuneko 33 da, ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

b) Merkataritza-zorraren iraunkortasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gainditzen berankortasunari buruzko araudiko gehieneko epea.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	8,28
Bigarren hiruhilekoa	29,27
Hirugarren hiruhilekoa	29,16
Laugarren hiruhilekoa	26,86

Ordaintzeko batez besteko epeak lehen hiruhilekotik gainerako hiruhilekoe-tara izan duen bilakaerak ez du esan nahi adierazleak okerrera egin duenik; aitzitik, 2018ko apiriletik aurrera aplikatu beharrekoa den 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu-metodologia berriaren ondorio da.

VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena

Lehentasunezko zat jotzen dugu 2017ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-lanetan emandako gomendio hauek betetzea, oraindik ere ez baitira bete:

- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea.*

- *Osoko Bilkurak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatuko diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen alde aurretiko kontu-hartzaitza egiterakoan.*

- *Balorazio-ponentzia berrikusteko prozesua amaitzea.*

- *Aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudian kontratueterako ezarritako gehieneko indarraldi-epea errespetatzea, eta kontratuen plangintza egokia ezartzea, egungo araudiak aurreikusten ez dituen luzapenak ekiditeko.*

- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak ordaindu behar diren kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onets dezan.*





• *Berrikustea ea udalekotu diren zerbitzuen kudeaketa-eredu berriak egiazki zerbitzu eraginkorragoak eta efizienteagoak dakartzan, udalekotzeari buruzko 2016ko abenduako erabakiaren oinarrietan aipatutako baldintzetan.*

VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak

VI.5.1. Alderdi orokorrak

Entitatearen 2018ko ekitaldiko aurrekontua eta exekuzio-oinarriak behin betiko onetsi ziren, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, NAO) 2018ko otsailaren 22an argitaratu ondoren sartu ziren indarrean.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2018ko aurrekontuen likidazioa 2019ko apirilaren 12an onetsi zen. Kontu Orokorra Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen 2019ko azaroaren 14an.

2018ko kontuei dagokienez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak, Gayarre Antzokia fundazioaren kontuak eta Udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresa publikoen kontuak —Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA, Animsa eta Mercairuña SA— kanpoko profesionalak ikuskatu dituzte. Finantza-auditoretzako eta legezketasuneko txosten guztiek aldeko iritzia dute, Haur Eskolak erakunde autonomoko kontratazioaren arloko bi salbuespen izan ezik.

Egindako azterketatik, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

• “Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL” sozietatea eratzeari dagokienez, honako hau aipatu behar dugu:

a) Sozietate baten jardueraren eta sorreraren bideragarritasunari buruzko kanpo-azterketa bat dago. Aipatutako azterlanetik, jarduera bideragarritzat jo zen, geroago barneko txosten tekniko batetik ondorioztatzen denez.

b) Barne-txosten juridikoek eta kontu-hartzaitzaren txostenek, kanpoholkularitza oinarri hartuta, proiektuak dakartzan hainbat arriskuren berri ematen dute.

c) 2018ko ekainean, Udalaren Osoko Bilkurak sozietatea eta haren estatutuak eratzea onartu zuen, bai eta osorik harpidetzea eta kapital soziala ordaintzea ere (3.000 euro).

d) 2018ko irailean notarioaren aurrean formalizatu ziren eskriturak. 2018ko azaroan, 120.000 euroko finantzaketa transferitu zitzaion. Finantzaketa hori sozietatearen ondare garbi gisa ageri da 2018ko abenduaren 31n.

e) Merkataritza Erregistroak 2018ko urrian eta 2019ko martxoan ukatu zuen erregistroan inskribatzea, bazkide fundatzaileak ez dituelako betetzen Toki





Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren lehenengo paragrafoko lehenengo lerrokada.

Horri dagokionez, xedapen horrek honako hau ezartzen du:

"Lege honen 3.1 artikuluko toki entitateek eta haien mendeko erakunde autonomoek ezin izanen dituzte organismo, entitate, sozietate, partzuergo, fundazio, unitate eta gainerako ente berriak erosi, eratu edo haien eraketan parte hartu, zuzenean edo zeharka, haien ekonomia-eta finantza-plana edo doikuntza-plana indarrean dagoen bitartean."

Adierazten dugu Udala 2018-2019 aldirako Plan Ekonomiko-finantzarioaren mende zegoela 2018an, gure txostenaren VI.3 atalean aipatua, eta horrek ezinezko egiten zuela aipatutako merkataritza-sozietatea eratzea, berrikusitako dokumentazioan inolako ohartarazpenik jaso gabe.

- 2018ko abenduaren 26an, 2,66 milioi euroko kreditu-transferentzia bat onetsi zen, langile-gastuen partida jakin batzuetan kreditu nahikorik ez egoteagatiko aurrekontu-estaldura emateko.

Urte amaieran, ordea, aipatu kredituen lotura juridikoaren maila 0,10 milioi eurotan gainditu dela antzeman da. Kontu hori agerian utzi zuen Kontu-hartzailetzak aurrekontuaren likidazio-espeditentari buruzko txostenean.

- Haur-eskolak erakunde autonomoan kontratatzeari dagokionez, bi salbuespen daude (0,24 milioi euro), eta haien oinarria da elikadura-zerbitzuak eta garbiketa-produktuak legezko euskarririk gabe ematea. Txostenean adierazten da salbuespenetako bat 2019ko ekitaldian zuzendu dela.

- Indarrean jarraitzen dute, Hirigintzako Gerentziari dagokionez, kanpoko auditoreen txosteneko gomendioek, ekitaldiaren itxieran likidazioa eta behin betiko kontabilitate-itxiera egiteko duten poligonoei buruzkoek —diruzaintza-gerakinean ageri dira—. Zenbatetsi den kopurua 4,12 milioi eurokoa da.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren likidazio-espeditentea eta Kontu Orokorra legez ezarritako epeetan onestea.*

- *Plan ekonomiko-finantzarioak indarrean dauden bitartean, mendeko erakundeak sortzeko eta eratzeko toki-esparruan ezarritako debekuak errespetatzea.*

- *Langileen gastuan sor daitezkeen desbideratzeen gaineko kontrol handiagoa egitea, behar adinako aurrerapenaz eta aurreikuspenarekin izapidetzeko aurrekontuetan egin daitezkeen aldaketak, hartara, kredituen lotura juridikoaren mailak ez gainditzeko.*

- *Haur-eskolak erakunde autonomoaren kontratazioan kontrola indartzea, lizitazio berrien plangintza egokia eginez.*





VI.5.2. Barne-kontrola

Kontu-hartzaitzaren barne-kontrola dela eta, honako hau esan behar dugu:

- Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena. Udalean, Kontu-hartzaitzak ez du kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren gaineko kontrolik egiten.

- Udalaren barne kontrola soilik kontu-hartzaitzaren eginkizunaren bitartez egiten da, gastuen alde aurreko fiskalizazio mugatuaren bitartez, exekuzio-oinarrietan ezarritako moduan.

Fiskalizazio hau dela-eta honako hau adierazi behar dugu:

a) Kontu-hartzaitzaren barne-txostenak daude. Txosten horietan, organoaren eskumena egiaztatzeaz eta kreditua egokitu eta egoteaz gain, beste alderdi formal batzuk egiaztatzen dira. Horri dagokionez, esan behar dugu Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen arabera, kudeaketa prozesuan garrantzia duten beste alderdi batzuen zehaztapena Udalaren Osoko Bilkurak onetsi behar duela.

b) Egiaztapen osagarri horien ondorioz, espediente batzuetan zenbait ohar egin dira berariaz, aurrekontu-kreditua badagoela eta gastua aurrekontupartidara egokitzen dela egiaztatzeaz edo organo eskudunak kreditu hori onartu izanaz harago; halakoek, halere, ez dute etete-ondoriorik izan, arestian aipatutako lege-esparruan ezarritakoaren arabera.

c) Geroztik ez da osoko fiskalizaziorik egiten, aurretiko fiskalizazio mugatua ekarri zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin ordezkagarri batetik abiatuta.

- Diru-sarrerak direla eta, ez dira egiten haiek kontabilizatu ondorengo egiaztatze-jarduketak.

- 2018ko ekitaldian, ez da ageri Kontu-hartzaitzak egindako eragozpen-oharrik.

- Aldez aurreko fiskalizazio mugatua aurrekontu- eta ogasun-esparruan barne-kontrolako modalitateetako bat dela alde batera utzi gabe, 50.000 biztanletik gorako biztanleria duten toki-erakundeentzat³, uste dugu egindako egiaztapenek eta, hala badagokio, berariaz adierazitako ohar osagarriek alderdi formal eta prozedurazkoetara mugatzen dutela barne-kontrola.

³ Iruñeko Udalarri bakarrik aplikatzen zaio, daukan biztanleria dela eta.





Alde horretatik, uste dugu kontrol-eredu eraginkorrago batek erregimen arrunt gisa hartu beharko lukeela aurreiazko fiskalizazio osoa, eta izaera bereziarekin utzi beharko lukeela aldez aurreko fiskalizazio mugatua, izaeragatik edo zenbatekoagatik komenigarria den gastuetarako soilik. Udalaren Osoko Bilkurak onetsi behar du fiskalizatzeari begira zein alderdi hartuko diren oinarritzko baldintza orokor eta gehigarri gisa, eta alderdi horien ez betetzea dela eta etete-eragindun eragozpen-oharra egin beharko da.

- Langile-gastuen barne-kontrolari dagokionez, Ganbera honen aurreko txostenetan behin eta berriz esan dugun bezala, esan behar da Kontu-hartzaitzak ez dituela gastu horiek fiskalizatzen. Horri dagokionez, kontu-hartzaitzak kontu orokorrari buruz egindako txostenak lan hori ez egiteko arrazoiak azaltzen ditu.

Langileen gastuak udalaren gasturik adierazgarriena dira, guztizkoaren ehuneko 42; beraz, beharrezkoa eta nahitaezkoa da kontu-hartzaitzak haiek aldez aurretik edo ondoren fiskalizatzea.

- Plantilla organikoan jasota dago Kontu-hartzaitza Udaleko kontu-hartzaile lanpostu batek eta lau kontu-hartzaile delegatuk osatzen dutela.

- Erakunde autonomoetan, kontu-hartzaitzaren eginkizuna Udalaren beraren langileen bitartez betetzen da, kontu-hartzaitza eskuordetuaren eginkizunez baliatuta, eta kontrol finantzarioa, berriz, kanpoko auditoretza-enpresen bitartez gauzatzen da. Ez da eraginkortasunaren kontrolik egiten.

- Merkataritza-sozietateetan eta fundazioetan, kanpo-auditoretzen bidez ere gauzatzen da finantza-kontrola.

Gure gomendioak:

- *Aurreiazko fiskalizazio osoaren aplikazioa aztertzea barne-kontrolako erregimen arrunt gisa, eta erregimen berezizat hartzea aldez aurreko fiskalizazio mugatua, soilik zenbatekoaren edo izaeraren arabera zehazten diren arlo eta/edo gastuetan.*

- *Osoko Bilkurak, lege-esparrua betez, aldez aurreko fiskalizazio mugatuan, kudeaketa-prozesuan duten garrantziagatik egiaztatu behar diren alderdiak zehaztea, oinarritzko baldintza orokor eta gehigarri gisa.*

Alderdi horiek egiaztatzeko, txosten-eredu estandarizatu eta informatizatu bat aurkeztu beharko litzateke, fiskalizatu beharreko baldintza guztiak jasoko dituen, fiskalizazio-prozedurari bizkortasuna emateko eta kontu-hartzaitzaren baliabideak optimizatzeko.





- Aldez aurretik egindako fiskalizazio mugatuaren ondoren fiskalizazio osoa egitea; halaber, diru-sarreraren kontabilitateko arrazoi-hartzearen ondorengo egiaztatze-jarduketak egitea, tokiko ogasunen esparruan aurreikusitako baldintzetan.

- Kontu-hartzaitzari atxikitako giza baliabideen nahikotasuna baloratzea eraginkortasunaren kontrola egin ahal izateko, eta, hala badagokio, baliabide pertsonal nahikoak ematea.

VI.5.3. Udaleko langile-gastuak

Langile-gastuak 85,98 milioi eurokoak izan ziren 2018an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 42 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 100 da.

2017ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako betebeharrak, osotara, ehuneko bost handitu ziren, honako xehetasun hauen arabera:

Kontzeptua	Aitortutako betebehar garbiak, 2017	Aitortutako betebehar garbiak, 2018	Aldea	Aldea (%)
Hautetsien lansariak	949.453	958.986	9.533	1
Behin-behineko langileen ordainsariak	1.825.174	2.018.012	192.839	11
Funtzionarioen oinarritzko lansariak	26.773.484	27.549.520	776.036	3
Funtzionarioen lanari osagarriak.	12.941.482	13.888.576	947.094	7
Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	835.101	1.262.243	427.141	51
Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	5.924.568	7.027.513	1.102.945	19
Kuota sozialak	10.477.280	11.389.529	912.249	9
Pentsioak eta gizarte zerbitzuak	21.109.629	21.100.528	-9.102	0
Langileen gizarte gastuak	267.240	331.814	64.574	24
Familia-osagarria.	465.656	458.038	-7.618	-2
Guztira	81.569.067	85.984.758	4.415.691	5

Zenbaki absolutuetan, nabarmentzekoa da aldi baterako lan-kontratudun langileen ordainsarien gastua 1,1 milioi euro igo dela, batez ere etxez etxeko languntza-zerbitzua kudeatzeko langileen subrogazioak eraginda. 2017ko martxoan gauzatu zen subrogazio hori, eta aipatutako aurrekontu-ekitaldian hamar hilabeteko aldia egotzi zitzaion; 2018ko ekitaldian, aldiz, 12 hilabete egotzi zaizkio.

2018ko abenduaren 31n, memorian jasota dagoenez, Udalak honako lanpostu hauek zituen:

Sailkapena	2018
Behin-behineko langileak	41
Langile funtzionarioak	1.354
Lan araubidea	234
Guztira	1.629





Honako hau da lanpostuen egoera 2018an:

	2018
Plantillako langileak	1.629
Postu beteak	916
Hutsak	713
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	44
Betetako lanpostu hutsak	578
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	81
Bete gabeko lanpostu hutsak	135
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	19

2018an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 44 hutsik daude; horietatik, ehuneko 81 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 19k, bete gabe jarraitzen dute.

Honako hau da plantillaren banaketa, udal alorren arabera:

Udalaren alorra	Lanpostu kopurua	Gutzikoa- ren gainean (%)
Herritarren Segurtasuna eta Elkarbizitza	497	31
Gizarte ekintza	376	23
Kultura eta Hezkuntza	170	10
Hiri Bizigarria eta Etxebizitza. Hiri Kontserbazioa eta proiektuak	163	10
Hiri Ekologia eta Mugikortasun Jasangarria	95	6
Tokiko Ekonomia Jasangarria. Ogasuna, Gizarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa	83	5
Tokiko Ekonomia Jasangarria eta Giza Baliabideak	65	4
Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika	63	4
Hiri Bizigarria eta Etxebizitza. Hirigintza, Etxebizitza eta Zaharberritzea	45	3
Komunitatearen Garapena	36	2
Alkatetza	20	1
Herritarren Partaidetza eta Gizarte Ahalduntzea	10	1
Berdintasuna	5	0
Guztira	1.629	100

Egin den azterketatik honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2018ko plantilla organikoaren behin betiko onespina 2018ko martxoan argitaratu zen NAOn, alegazioen izapidea amaitu ondoren.
- 2018ko plantilla organikoan lau aldaketa onetsi dira, baina ez dira NAOn argitaratu.
- 2018ko azaroan Iruñeko Udaleko 16 lanpostutarako lan-eskaintza publikoa (aurrerantzean, LEP) argitaratu zen.





• 2016-2018 urteetako LEPen jarraipena egin dugu. Honako hau da egoera, txosten hau emateko garaian:

	Eskaintako lanpostuak	Deialdia egin eta adjudikatu diren lanpostuak	Deialdia egin eta amaitu gabe dauden lanpostuak	Deialdia egiteko dauden lanpostuak
2016ko LEPa	17	10	4	3
2017ko LEPa	39	22	13	4
2018ko LEPa	16	2	7	7
Guztira	72	34	24	14
Ehunekoa		% 47	% 33	% 19

Geroztiko egitate gisa, esan beharra daukagu 2019ko LEPen 134 lanpostu jaso direla.

• Giza Baliabideen Alorraren txosten bat dago, 2018ko lan-eskaintza publikoan sartu beharreko lanpostuen balorazioa egiten duena, araudiak plantillak egonkortzeko ahalbidetzen dituen egoeren arabera⁴, eta hartan soilik berrezarpen-tasak jasotzen dira, eta ez aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriaren aukerak.

Kontuan hartuta aurreko ekitaldian ez zuela gastu-araua bete, eta kontuan hartuta, halaber, zerbitzu publikoak ematerakoan zein diren lehentasunezko sektoreak eta zein gainerako sektoreak, Udalak berrezarpen-tasa hauek zenbatu ditu 2018ko lan-eskaintza publikoan:

a) Berrezarpen-tasa ehuneko 75 eta 100 artekoa da. Tokiko poliziaren kasuan, berriz, tasa ehuneko 115ekoa da.

b) Horretaz gainera, berrezarpen-tasa osoaren ehuneko bostaren baliokidea den lanpostu-kopurua eskaini ahal izanen da, eta lanpostu horiek langileen ahalgin gehigarria behar dutela uste duten sektoreetara edo eremuetara bideratuko dira.

Aurrekoak kontuan izanik, honako hauek dira datuak:

2017an zerbitzuak emateari utzi zioten langile finkoak

Sektoreak	Kopurua	Berrezarpen-tasa	Eskaini beharreko lanpostuak, guztira*
Udaltzaingoa	5	% 115	6
Gizarte ekintza	1	% 100	1
Udaleko gainerakoak	11	% 75	8
Guztira	17		15
Berrezarpen-tasa gehigarria, % 5	0,895		1
2018ko LEPerako lanpostuak, guztira			16

* Hamarrenetara doitutako zenbatekoa

⁴ 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikulua.





Egindako berrikuspenarekin egiaztatu dugu jasotako 16 plazetatik hiru ez zirela 2018ko lan-eskaintza publikoan aurreikusi beharko, ez zelako baja efektiborik izan aurreko ekitaldian, zenbatzeko baldintza gisa; beraz, aipatutako arau-esparruaren ez-betetze bat da hori.

- 2017ko irailean, honako hau argitaratu zen NAOn: “Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2017-2019 urteetarako akordioa”. Funtzionario publikoen enplegu-baldintzei buruzko akordioaren arloan aplikatzekoa da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 84. artikuluan xedatutakoa. Akordio horiek soilik egin daitezke kasuan kasuko Administrazio Publikoaren eskumeneko arloei buruz, eta ezin da aipatutako araudiaren aurka egin.

Aipatutako akordioa aztertuta, ikusi da ordainsari-osagarriak eta kalte-ordainak jasotzen dituela, Langileen Estatutuan jasotakoa gainditzen dutenak. Udalak ezin du lege-araubide hori aldatu, ez eta aplikatzekoa den araudian jasotakotik bereizten den araubide bat itundu ere.

Zehazki, aztertutako datuetatik, honako osagarri hauek identifikatu eta kuantifikatu ditugu:

a) Udalaren akordioaren 6.4 artikulua ezartzen du Udaltzaingoari dagozkion zerbitzuen kudeaketarako “ordu erabilgarrien poltsa” bat sortuko dela. 2018ko ekitaldian ez dago lege-araurik osagarri horren kobrantza gaitzen duenik; horrenbestez, ez da bidezkoa hura jasotzea. Urteko zenbatekoa 282.063 eurokoa izan da. Egia bada ere 2019. urterako Aurrekontuei buruzko Foru Legeak⁵ hura kobratzeko gaikuntza ematen duela Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legean 57.C.h apartatua sartzearen bidez, arau horrek 2019ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra.

b) Udaltzaingoari egindako ordainketek —udal segizioa, lanpostu-osagarri aldakorra, San Ferminetan egindako lanarengatiko konpentsazioa eta San Ferminetan egindako jaiegunen konpentsazioa kontzeptuen pean— ez zuten euskarriarik Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legean. Hala ere, aurrekoa indargabetzen duen Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Lege berria 2018ko azaroaren 21ean indarrean jarri zenetik, konpentsazio mota horrek, behar bezalako erregelamendu-garapenarekin, legezko euskarria izanen luke, herrietako jaiak direla-eta dispositibo berezietan parte hartzeagatiko konpentsazio gisa.

⁵ 2019. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legearen azken xedapenetatik zazpigarrena.





- Ordainsari osagarri jakin batzuen kobrantza plantilla organikoan aurreikusitakoarekin bat datozela egiaztatu dugu. Lagina aztertu dugu Udaleko langile guztien abenduko nomina egiaztatuz, aparteko paga kanpo utzita.

Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoa:

Plantillako osagarriak	Diru-zenbatekoa
Irakaskuntzako	27.310
Arrisku berezikoa	57.924
Berariazkoa	216.524
Esklusibitatea	15.300
Bateraezintasuna	93.160
Lanaldiaren luzapena	734
Zuzendaritza postua	514
C eta D mailetako osagarriei buruzko Foru Legea	121.326
Abenduko osagarriak, guztira	532.793

Oro har, udaleko langileen ordainsariak bat datoz betetzen duten lanposturako plantilla organikoan aurreikusitako osagarriekin. Halere, akats hauek aurkitu dira:

Irakaskuntza-osagarriari dagokionez, Langileen Estatutuak unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat soilik aurreikusten du osagarri hori. Polizien ondoz ondoko foru legeek ez dute osagarri hori kobratzea aurreikusten. Hala ere, izendapen hori duen osagarri bat Segurtasun Eskolan destinatutako poliziek jasotzen dute, eta, beraz, bere izaera dela-eta lanpostuaren osagarri batekin partatu daiteke. Kasu horretan, kontuan hartu behar da lanpostuagatik osagarrien baturak ezin duela legez aurreikusitako ehuneko 75eko muga gainditu, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 44. artikulua arabera.

b) Detektatu dugu lantegi-eskolako 11 langilek administrazio-kontratua dutela, eta, plantilla organikoan aurreikusitako osagarriak jaso arren, irakaskuntzako osagarriaren eta lanpostuko osagarriaren baturak mailako soldataren ehuneko 75eko muga gainditzen duela. Muga hori Langileen Estatutuaren arestian aipatutako 44.1 artikuluan dago aurreikusita.

Gure gomendioak:

- *Plantilla organikoaren aldaketak NAOn argitaratzea.*
- *Berrezarpen-tasaren mugak errespetatzea lan-eskaintza publikoak onesterrakoan.*
- *Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriak ahalbidetzen dituen lanpostuak kontuan hartzea lan-eskaintza publikoetan, lanpostuen behin-behinekotasuna ahalik eta gehien murrizteko.*
- *“Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2018-2019 urteetarako akordioa” berrikustea, eta itunak Udalaren eskumenekoak diren gaietara mugatzea.*





• *Zenbait udaltzainek jasotako irakaskuntza-osagarria lanpostu-osagarri gisa kontuan hartzea, baita Lantegi Eskoletako irakasleek jasotakoa ere, kontuan hartuta azken horrek ezin duela gainditu Langileen Estatutuan ezarritako oinarrizko soldataren ehuneko 75a.*

VI.5.4. Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

2018an Udalaren ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 71,69 milioi eurokoak izan ziren, eta 2018an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 35 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 96koa izan da, eta ehuneko zortzi egin zuten gora 2017arekin alderatuta.

Ondasunetan eta zerbitzuetan 2018an egindako gastuak, milioi bat eurotik gorakoak, eta horien eta 2017koen arteko alderaketa honako hauek dira:

Kontzeptua	Aitortutako 2017	Aitortutako 2018	Aldea	% Aldea
Bide publikoa garbitzea	8.294.960	9.383.083	1.088.123	13
Mugikortasuna, trafikoa eta MUGAren kudeaketarako kontratua	7.645.691	7.771.292	125.601	2
Berdeguneak, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	4.009.525	3.993.080	-14.446	0
Informatika eta zerbitzu informatikoen mandatu berriak	2.794.893	3.109.585	314.692	11
Argiteria publikoaren kontsumoa	2.425.778	2.696.547	270.770	11
Kultur azpiegiturak. Jardueren kudeaketa	2.956.689	2.353.863	-602.826	-20
Pentsioak eta laguntza. Bestelako gastu askotarikoak	0	2.353.396	2.353.396	
Ikastetxe publikoak, garbiketa zerbitzuak	2.059.764	2.099.176	39.412	2
Argiteria publikoa. Argiteria publikoaren kontratua	1.447.944	1.447.254	-689	0
Kulturaren zabalkundea	1.267.969	1.302.446	34.476	3
Kirol instalazioak, jardueren kudeaketa	1.198.143	1.204.051	5.908	0
Bide publikoa, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	1.120.061	1.135.511	15.450	1
Haurren eta familiaren arreta. Jardueren kudeaketa	1.602.862	1.058.150	-544.711	-34
Higiene zerbitzuak. Garbiketa-kontratuak	1.039.496	1.038.945	-551	0
Herritarrentzako komunikazioa. Publizitatea eta propaganda	948.658	1.030.440	81.782	9
Diru-bilketa eta diruzaintza. Diru-bilketa zerbitzuak	1.016.936	1.015.825	-1.111	0

Gastuen kapitulu honen fiskalizazioa 2018an lizitatutako eta/edo adjudikatutako gastu-partiden eta zerbitzuen lagin baten gainean egin da.





Gastu-partidak

Gastuen honako partiden lagin bat fiskalizatu da:

Aurrekontu-partidak	2018ko betebeharrak
Garbiketa publikoa	9.383.083
Informatika eta zerbitzu informatikoen mandatu berriak	3.109.585
Pentsioak eta laguntza. Bestelako gastu askotarikoak	2.353.396
Haurren eta familiaren arreta. Jardueren kudeaketa	1.058.150

Gastuen partidak berrikusi ondoren, ondoriozta dezakegu, oro har, fiskalizatutako laginean gastuak justifikatuta, onetsita, atzemanda, behar bezala kontabilizatuta eta ordainduta daudela, kontratuetan ezarritako estipulazioen arabera, eta honako hau nabarmentzen da:

- "Informatika eta zerbitzu informatikoen gomendio berriak" partidak Udalaren eta Animsa sozietatearen arteko harremanen aurrekontu-egozpena jasotzen du, udalaren berezko bitarteko instrumental eta bitarteko gisa. Harremanak baliabide propioei egindako enkarguen figuraren bidez gauzatzen dira, kontratazio publikoaren esparruan aurreikusia.

Enkarguaren aurreikuspen ekonomikoak hainbat partidari egozten zaizkie, eta honako hau da banaketa:

Aurrekontu-partida	Enkarguaren aurreikuspena
Informatika eta zerbitzu informatikoen mandatu berriak*	3.238.666
Informatika eta zerbitzu informatikoen mandatu berriak**	568.463
2. kapitulua, atal honetan, guztira	3.807.129
Informatika eta prozesuetarako ekipamendu berriak	233.110
Informatika eta aplikazio informatiko berriak	613.890
6. kapitulua, atal honetan, guztira	847.000
2018ko enkargua, guztira	4.654.129

* Milioi eurotik gorako partida gisa hautatutako partida

** Beste kode funtzional bati dagokion partida, milioi eurotik gorako partida gisa hautatu ez dena

Honako hau izan da 2018ko betetzea:

Iruñeko Udala

Enkarguaren aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak, 2018*	Desbideratzea
4.654.129	4.604.663	49.466

* Aipatutako partida guztietan

Animsa

Animsaren aurreikusitako finantzaketa	Udalaren finantzaketa	Baliabide propioen kostua	Gerakina
4.654.129	4.604.663	4.340.188	264.475





Hau da, 2018ko ekitaldian Udalak 4,60 milioi euro ordaindu dizkio Animsari, enkargua gauzatzeko. Sozietateak 4,34 milioi euroko gastuak egotzi ditu horiek gauzatzeko, eta hortik sortzen da hurrengo ekitaldiko proiektuen finantzaketan sartzen den gerakin bat, enkarguaren baldintzetan ezartzen den bezala.

Egindako enkargutik, honako hau egiaztatu dugu:

a) Animsak enkarguen araubiderako BEZaren zerga-araudi espezifikoaren betetzea⁶, fakturazioan eragiketa zergapekoak eta ez zergapekoak bereiziz, bai eta kontabilitatean islatzea eta fakturatutako proiektuei eragitea ere.

b) Enkarguaren testuan ezarritakoaren arabera, Animsak Udalari ekipamendu-entregetan kostu osagarririk ez jasanaraztea.

c) Udalaren barne-kontrola, jasotako fakturen jarraipen- eta egiaztapen-prozesuari dagokionez.

• “Pentsioak eta laguntza. Bestelako gastu askotarikoak” partida bat dator 2018an Nafarroako Gobernuari egindako 2,35 milioi euroko itzulketaren aurrekontu-egozpenarekin, honako erabaki hau betearaziz: *"Nafarroako Gobernuaren 2017ko martxoaren 22ko Erabakia, zeinaren bidez erregularizatzen baitira Iruñeko Udalak 2013ko apirilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitartean jasotako gehiegizko zenbatekoak"*.

Udalak erabaki horren betearazpena gauzatzeari kalterik egin gabe, aipatutako zenbatekoa itzuliz, errekurtsua jarri zen Nafarroako Gobernuan. Hona, beraz, egoera:

a) Errekurtsua ezetsi egin zen, eta, ondoren, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zen.

b) 2018ko abenduaren 19an, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko (aurreantzean, NJAN) Administrazioarekiko Auzien Salak epaia eman zuen, zeinean udal demandatzailearen uziak baiesten baitzituen.

Geroztik, 2019ko otsailaren 7an, Nafarroako Gobernuak kasazio-errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean, eta behin betiko erabaki judizialaren zain dago.

• Halaber, Nafarroako Polizien Sindikatu Independentek 2018ko azaroan Comptos Ganberari eskatuta⁷, honako gastu-partida hauek fiskalizatu dira:

Aurrekontu-partidak	2018ko betebeharrak
Administrazio orokorra. Aldagelako segurtasuna	130.754
Administrazio orokorra. Material teknikoaren segurtasuna	12.215

⁶ Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 7.8 c) artikulua

⁷ Eskaria 2015-2018 aldiari buruzkoa zen.





Eskaera horri dagokionez, jantziak eta materiala eskuratzeko prozedurak kontratazio-araudiaren arabera izapidetu dira. Era berean, gastu-partidetan airtortutako betebeharrak aurrekontu-araudia bete dute kredituen xedeari dagokionez; halaber, araudia bete da aurrekontuan onetsitako kredituen gehienekoa baino gauzatze-maila txikiagoak izateko aukerari dagokionez.

- Fakturen ehuneko 39 kontratu-esparruak ezarritako gehieneko 30 eguneko epean ordaindu dira.

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

2018an egindako lizitazio hauek berrikusi ditugu, bai eta haien adjudikazioa eta urte horretako gastu-exekuzioa ere:

Kontratua	Prozedura	Esparru juridikoa	Zenbat lizitatu diren	Lizitazioaren zenbatekoa*	Adjudikazioaren prezioa	Beharpearen ehuneko
Aparkatze arautuaren zerbitzua Iruñeko bide publikoetan	Irekia, Europako atalasetik gora	2/2018 Foru Legea	7	31.748.638	27.145.085**	14,5
Argiteria publikoko instalazioak mantentzeko eta kontserbatzeko lanak	Irekia, Europako atalasetik gora	2/2018 Foru Legea	3	4.834.710	4.669.835	3,4
Civivox sarearen eta San Juan Bosco zentroaren zerbitzu soziokulturalen kudeaketa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	6/2006 Foru Legea	2	5.313.719	3.123.967	41
Civivoxaren garbiketa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	1	165.289	150.744	8,8
Harresietako eta Zitudadelako mantentze-eta kontserbazio-lanen kontratazioa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	6/2006 Foru Legea	1	264.463	264.463	0
Civivox Sareko erakinen mantentzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	3	167.107	111.369	14,3
Iruñeko udal-mugarteko ondasun higiezin batorazio-txostenaren proiektua egiteko zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	1	59.765	59.168	1

* Zenbatekoak BEZik gabe:

** 2019ko uztailean adjudikatutako kontratua





Oro har, kontratuen lizitazioak eta haien adjudikazioak, bai eta kontratuen exekuzioak ere, kontratuei buruzko legeriari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaileak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude; halere, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Argiteria publikoko instalazioen mantentze- eta kontserbazio-lanen aurreko kontratua 2016ko abenduaren 31n amaitu zen, eta kontratu berrirako lizitazioa ez zen 2018ko irailera arte egin, eta 2019ko otsailean hasi zen gauzatzen. Beraz, aurreko adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematen jarraitu du, legezko aurreikuspena bi urte eta hilabete gaindituta, eta 2018an Udalak 1.447.254 euro ordaindu ditu.

- "Civivox sareko eta San Juan Bosco zentroko kultura-zerbitzuak kudeatzeko" aurreko kontratua 2016ko ekainean amaitu zen. Kontratu berriaren lizitazioa 2017ko urrian hasi zen, adjudikazioa 2018ko martxoan egin zen eta exekuzioa 2018ko apirilean hasi zen. Beraz, aurreko adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematen jarraitu du, legezko aurreikuspena 21 hilabetez gaindituta, eta 2018an Udalak 759.971 euro ordaindu ditu.

Kontratuaren adjudikazioari dagokionez, hiru lotetan lizitatu zen. % 41eko baja eskaintza bakoitzaren emaitzaren ondorio da, eta ez da ausarkeriazko bajeztat jotzen lote bakoitzaren lizitazio-baldintzen arabera.

- Berrikusitako hiru espedientetan kontratazio-organoak adjudikaziorako aurreikusitako gehieneko epea zazpi eta 31 egun bitarte geroratu du.

- Fakturen ehuneko 41 kontratu-esparruak ezarritako gehieneko 30 eguneko epean ordaindu dira.

Azken batean, kontratuen esparruan aurreikusitako adjudikazio-prozeduren arabera lizitatzen dira kontratuak; halere, ikusten da kontratazioaren plangintza desegokia dela, 2016ko eta 2017ko ekitaldietako fiskalizazioetan detektatu zen bezala. Aurreko adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematen jarraitzearen aldeko joera orokorra ikusi dugu, indarraldia amaituta zuten kontratuetan.

Gure gomendioak:

- *Kontratuen indarraldia dela-eta kontratuei buruzko araudian ezarritako gehienekoa errespetatzea, eta kontratuen adjudikazio-prozeduretarako plangintza egokia ezartzea.*

- *Kontratuen adjudikazioak kontratazio publikoaren esparruan aurreikusitako epeetan egitea.*

- *Fakturak araudiak ezartzen duen 30 eguneko gehieneko epea betez ordaintzea.*





VI.5.5. Inbertsioak

Udalak 2018an egindako inbertsioek 13,29 milioi euro egin zuten. Zenbateko hori ekitaldiko gastu guztien ehuneko zazpi da. Hasierako kredituak 7,1 milioi euro handitu dira, gastuen aurrekontuan egindako aldaketen bidez; haien zenbatekoaren ehuneko 61 da hori.

Horren betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 71ekoa izan zen, eta gastua, 2017koa baino ehuneko zazpi handiagoa.

Obra-kontratuen, hornidura-kontratuen, lokalen erosketen eta horien gastuen adjudikazio hauek fiskalizatu ditugu:

Kontzeptua	Prozedura	Esparru juridikoa	Zenbat lizitatzailerak	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioko prezioa	Beherapena, %
Pio XII.aren etorbideko bideak eraberritzeko obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	5	1.647.765	1.318.242	20
Redin Cruzat jauregiaren erreforma, zentro komunitario sozial eta kulturala izan dadin. Plazara proiektua.	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	3	559.341	536.226	4,13
Maria Auxiliadora ikastetxeko irisgarritasuneko eta ekitaldiarako aretoko obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	4	495.774	424.330	14,41
Maria Auxiliadora ikastetxeko administrazio-esparruan erreformak egitea herritarrei zerbitzuak emateko eta herritarren erabilerarako	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	7	335.847	268.700	9,96
Videowall-a homitzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	3	123.967	105.674	14,76
Arrosadia auzoan lokal bat erostea, egoiliarrentzako bizikleten aparkaleku bat jartzeko	Lehiaketa publikoa	6/1990 Foru Legea	3	115.000	102.000	11,30
Arrotxapea auzoan lokal bat erostea, auzo horretako egoiliarrentzako bizikleten aparkaleku bat jartzeko	Lehiaketa publikoa	6/1990 Foru Legea	3	115.000	90.000	21,74

* BEZik gabeko zenbatekoak


Oro har, kontratuen lizitazioa eta haien adjudikazioa legeria betez egin dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaileak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude. Halere, zenbait gabezia detektatu dira berrikusitako espedienteen izapideetan; ondoren, aipagarrienak azalduko ditugu:

- Ez dago jasota inbertsio planik dagoenik.
- “Pio XII.aren etorbidearen bide-erreformako obrak” kontratuak honako exekuzio-datuak dauzka:

Kontzeptua	Adjudikazioko prezioa*	Amaierako likidazioa*	Desbideratzea (%)
Pio XII.aren etorbideko bideak eraberritzeko obrak	1.318.242	1.611.665	22

* BEZik gabeko zenbatekoak





Egin dugun berrikuspenean oinarritua, honako hau adierazi behar dugu:

a) Proiektua 2017an adjudikatu zen, lizitazio-prozedura egin ondoren. Adjudikazioa zela eta, Nafarroako Kontratuen Auzitegian errekurtsioa aurkeztu zen, eta azken horrek errekurtsio-egilearen demanda baietsi zuen; beraz, Udalak adjudikazioa baliogabetu eta kontratua demandatzaileari adjudikatu behar izan zion.

b) Proiektuaren adjudikazio berrian ez zen luzatu hura idazteko epea, Udalaren txostenetan ageri denez, 2017ko aurrekontuaren finantzaketa ez galtzeko. Gainera, bilera guztiak ez ziren egin Iruñerriko Mankomunitateko garraio publikoko teknikariek eta hainbat arlotako udal-teknikariek osatutako diziplina anitzeko taldearekin (Mugikortasuneko Talde Teknikoa), eta horrek berekin ekarri zuen obrak egin bitartean zehaztapenak eta aldaketak egiteko beharra, batzuk obrek eragindako kolektiboek eta/edo herritarrek egindako eskaerak kontuan hartuta, eta beste batzuk aurretik aipatutako gainerako arlo eta erakundeen eskakizunek eragindakoak.

c) Obra-kontratua adjudikatzeari dagokionez, eskaintza ekonomikoaren balorazio-formula gisa batez besteko bajaran oinarritzen dena erabili zen. Horri buruz Ganbera honek beste fiskalizazio batzuetan jada gomendatu zuen eskaintzen batez besteko baja ez erabiltzea lizitatzaileek aurkeztutako proposamen ekonomikoetarako puntuazioak baloratzeko eta esleitzeko, zeren eta hala egiteak ez baitu beti errazten obra publikoen adjudikazioak efizientzia eta ekonomia irizpideak betetzea, eta eskaintza ekonomiko aldekoenaren nozio legala aldarazten baitu.

d) Obra egin bitartean, % 22ko desbideratzea gertatu zen, honela banatuta: ehuneko seiko desbideratzea obra-unitateak goitik neurtu zirelako —pleguetan aurreikusitako tartearen barruan dago hori—, eta beste desbideratze bat hasierako proiektuan aurreikusi gabeko unitate berriak sartu zirelako, % 16ko portzentajea —azken aukera hori, ordea, ez zegoen pleguetan jasota kontratua aldatzeko kausa gisa—.

e) Ehuneko 22ko desbideratze metatua 6/2006 Foru Legeak kontratu bat aldatzeko aurreikusitako gehieneko muga gisa ezartzen zuen ehuneko 20ko muga baino handiagoa da; ehuneko hori gaingitu ondoren, kontratua suntsiarazi behar zen. Udalak ez zuen kontratua suntsiarazi, eta adierazitako desbideratzearekin amaitu zen obra.

f) 2018ko abenduaren 31n, obraren harrera-akta sinatu zen. Egun berean, obra-kontratua aldatzeko espediente bat onetsi zen, bai eta dagokion gastugehikuntza ere, eta, ondoren, ehuneko 22ko desbideratzea justifikatu zen, bai juridikoki, bai eta aurrekontuetan ere. Espedientean, kontratu-esparrua ez dela bete ohartarazten duen txosten juridiko bat dago, bai eta Kontu-hartzailetzaren oharpen ez-etengarriak ere —eragozpen-izaerarik ez dute—.





• “Redín Cruzat jauregiaren erreforma, zentro komunitario sozial eta kulturala izan dadin. Plazara proiektua” izeneko kontratuari dagokionez, esan beharra dago hura adjudikatu zela kontratazio publikoari buruzko legerian kontratuak adjudikatzeko ezarritako 24 eguneko gehieneko epea gaindituta.

• María Auxiliadora ikastetxea dela-eta egindako obra-kontatuei dagokienez, honako hauek dira exekuzio-datuak:

Kontzeptua	Adjudikazioko prezioa*	Amaierako likidazioa*	Desbideratzea (%)
María Auxiliadora ikastetxeko irisgarritasuneko eta ekitaldietarako aretoko obrak	424.330	506.742	19,43
María Auxiliadora ikastetxeko administrazio-esparruan erreformak egitea herritarrei zerbitzuak emateko eta herritarren erabilerarako	268.700	295.458	9,96

* BEZik gabeko zenbatekoak

Egin dugun berrikuspenean oinarritua, honako hau adierazi behar dugu:

a) Espedienteak 2017ko irailean lizitatu ziren urte anitzeko kontratu gisa. Pleguetan aurreikusitakoaren arabera, kontratuak gehienez ere 2017ko azaroaren 30ean adjudikatu behar ziren, eta 2018ko martxoaren 20an adjudikatu ziren; hau da, ezarritakoa baino ia lau hilabete geroago.

b) Kontratu bakoitzeko desbideratzeak ehuneko 4,52 eta ehuneko 3,61eko desbideratzeak osatzen dituzte, hurrenez hurren, pleguetan aurreikusitako hasierako proiektuaren gainean obra-unitateak goitik neurtzeagatik eta hasierako proiektuan aurreikusi gabeko unitate berriak sartzeagatik —ehuneko 15,35 eta ehuneko 6,35, hurrenez hurren—; halakoak, ordea, ez dira jaso pleguetan kontratua aldatzeko kausa posible gisa, eta horiek txosten juridikoan jasota dagoenaren arabera justifikatu dira, ezin aurreikusizko inguruabarrak gertatzeagatik.

c) Kontratua aldatzeko eta gastua handitzeko espedienteetan, Kontuhartzaitzak oharpen bat egin zuen, eragozpen-izaerarik ez izateagatik eteteko ondoriorik ez duena, eta prozeduraren desadostasunari buruzko iritzia eman zuen, aldaketak geroago egin baitziren, aldeztatik egin beharrean.

d) Ziurtagiri guztiak 30 eguneko gehieneko epea gaindituta ordaindu dira.

Halaber, bi obren adjudikazio-hartzaileak honako faktura hauek ere jaulki ditu:

Kontzeptua	Diru-zenbatekoa
Energia elektrikoaren eta uraren hargune orokorrak	20.882
Patioko megafonia eta argiteria	14.388

* BEZik gabeko zenbatekoak





- Videowall-a hornitzeko kontratuari dagokionez, faktura ordaindu da, 30 eguneko gehieneko epea gaindituz.

- Lokalak eskuratzeko bi kontratuei dagokienez:

- a) 2017an lizitatu ziren bi jarduketari dagozkie.

- b) 2018ko urtarrilean, kasuko eskritura publikoak formalizatu ziren. Eragiketa mota horien izaeraren arabera, eskriturak sinatzeko unean egin zen ordainketa notario aurrean, justifikatu beharreko ordainketa-sistemaren bitartez alde aurretik baimendutako taloi baten bidez. Hala ere, gastua bidegabeki egotzi zitzaion 2017ko ekitaldiko aurrekontuari —zeinean justifikatu beharreko ordainketa baimendu baitzen—, 2018ko ekitaldiari egotzi beharrean; izan ere, azken urte horretan betebeharraren aitorpena sortu eta ordainketa egin zen.

Azken batean, berrikusitako espedienteetan, oro har, ez zen aurreikusten pleguetan kontratuak aldatzeko aukerarik, baina hori ez da eragozpena izan aldateta horiek egiteko, baimendutako gehieneko mugatik hurbil edo gorago dauden aldatetak egin baitira. Azken kasu horretan, kontratua automatikoki eta nahitaez suntsiarazi behar zen. Egoera hori saihestu egin behar da, bestek beste, lizitazio publikoan gardentasun-printzipioa errespetatzeko.

Bestalde, adierazten dugu espedienteak izapidetzean kontuan hartu behar direla zerbitzu juridikoek edo esku-hartzeko zerbitzuek arauak ez betetzeari buruz egiten dituzten gogoetak.

Gure gomendioak:

- *Inbertsio-plan bat onestea, plangintza egokia egin ahal izateko, bai eta jarraipena, kontrola eta ondorengo ebaluazioa egiteko ere.*

- *Saihestea batez besteko bajaren formula eskaintza ekonomikoak baloratzeko mekanismo gisa erabil dadila, eta puntuazioa onartutako eskaintzen prezioari esleitzea, horietako bakoitzak dakarren lizitazio-prezioaren murrizketaren proportzioan.*

- *Proiektu osoetan eta behar bezala gainbegiratuetan oinarritutako obra-kontratuak lizitatzea, ondoren plegu arautzaileetan aurreikusi ez diren kontratu-aldaketak saihesteko.*

- *Kontratu-aldaketen arloan kontratazio-araudiak ezartzen dituen gehieneko mugak, baldintzak eta ondorioak errespetatzea, eta neurri egokiak hartzea zerbitzu juridikoek edo esku-hartzeko zerbitzuek araudia betetzen ez dutela ohar-tarazten duten espedienteetan.*

- *Kontratazio publikoaren esparruan kontratuak adjudikatzeko aurreikusitako gehieneko epea errespetatzea.*

- *Kontratazio publikoaren esparruan obra-ziurtagiriak ordaintzeko aurreikusitako gehieneko epea errespetatzea.*





VI.5.6. Transferentzia-gastuak

2018an, Udalak 23,49 milioi euro egiten duten transferentziak eta dirulaguntzak egin zituen. Honako hauek izan ziren onuradunak:

	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharrak	Aldea (%) 2018/2017	Aitortutako betebeharrak	Aldea (%) 2018/2017
Erakunde autonomoak	9.825.964	-1	1.029.351	51
Udal sozietateak	610.864	-27	0	-100
Nafarroako Gobernuaren menpeko entitateak	197.568	0	0	0
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	165.000	0	0	0
Udalei	800	Ez da aplikagarria		
Mankomunitateak	2.492.168	11	0	0
Enpresa pribatuak	85.395	16	0	0
Familiak	2.189.938	-2	856.356	-34
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	4.795.952	0	0	0
Europar Batasunera transferentziak	1.060.466	15	180.000	0
Guztira	21.424.114	0	2.065.707	-17

Transferentziek eta dirulaguntza arruntek 21,42 milioi euro egin zuten. 2018ko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 11 dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 97 da.

Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko 0,29 igo ziren, nahiz eta alde ez-esanguratsu hori igoeren eta murrizketen arteko alde garbiaren ondorioz gertatu zen; honako hauek dira garrantzitsuenak:

- Udal-sozietateei egindako transferentziak ehuneko 27 murriztu ziren, Asimec SA sozietatea 2018an behin betiko iraungita zegoelako, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kudeaketan izan zen aldaketagatik.

- Iruñerriko Mankomunitateari egindako transferentzietan ehuneko 11ko igoera izan zuten (0,24 milioi euro) hiri-garraioa finantzatzeko, eta Europar Batasunari egindako transferentzietan, berriz, ehuneko hamabostekoa (0,14 milioi euro), giza laguntzako eta garapenerako lankidetzako hainbat proiektu finantzatzeko.

Transferentziak eta kapitaleko dirulaguntzak 2,07 milioi eurokoak izan ziren; horrek Udalaren 2018ko gastu guztien ehuneko bat egin zuen. 2017an aitortutakoak baino ehuneko 17 txikiagoak izan ziren, batez ere udal-sozietateei egindako kapital-transferentzien jaitsieraren ondorioz eta familiei eta erakundeei etxebizitzak birgaitzeko laguntzengatik dirulaguntzen ondorioz.





Transferentzia eta dirulaguntza arrunten eta kapitalekoen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Transferentzia arruntak	Onuradunen kopurua	Aitortutako betebeharrak
Beren instalazioak dituzten eta 2018rako ustiapen-kontuan defizit ekonomikoa aurreikusita duten kirol-elkarteentzako deialdia	3	75.000
Irabazi asmorik gabeko entitateentzako deialdia, gazteentzako proiektu edo jarduerak egiteko	13	51.000
Ekitaldiak, ikuskizunak eta bestelako jarduera fisiko eta kirolekoak antolatzen dituzten entitate fisiko eta kirolekoentzako deialdia	37	572.481
Herritarren parte-hartzerako deialdia	111	545.000
Iruñeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako liburutegietarako eta irakas-kuntza-material suntsikorretarako deialdia	26	110.330
Exekuzio-oinarrien 8. eranskinean aurreikusitako dirulaguntza izendunak		Aitortutako betebeharrak
Olentzeroren Lagunen Elkarte, 2018		15.000
Errege Magoen Kabalgata, 2018		50.000
La Pamplonesa musika banda		40.000
Kapital-transferentziak		Aitortutako betebeharrak
Hirigintzako Gerentziaren transferentziak		299.351
Haur Eskolen transferentziak		730.000

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta dirulaguntza guztiak onetsita, fiskalizatuta eta egoki kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera.

Hala ere, egindako fiskalizaziotik, eta oro har, erakundeen eta elkarten deialdietan ikusten da beti ez dela behar bezala egiaztatzen diruz lagun daitekeen jarduerari lotutako diru-sarrerak lortu direla, jarduera horren benetako defizita zehaztasunez ezagutzeko.

Prozedura egokiak ezartzea gomendatzen dugu, diruz lagundutako jarduerari lotutako diru-sarrerarik ba ote dagoen egiaztatzeko.

VI.5.7. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2018an aitortutako eskubideek 95,98 milioi euro egin zuten. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 46 egiten dute, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		Betetakoa (%)	Aldearen %, 2018/17
	2017	2018		
Zuzeneko zergak	51.908.402	55.474.256	103	7
Zeharkako zergak	6.076.237	9.607.382	158	58
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	30.098.878	30.902.618	114	3





Zergak

Zergak udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 31 egiten dute, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Diru-zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Diru-sarrerak	Aldea, % 2018/17
Zuzeneko zergak			
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	18.109	0	10
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	29.607.260	14	1
Zirkulazio zerga	9.913.500	5	4
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	6.210.718	3	84
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	8.986.675	4	1
Bingo-sarien gaineko zerga	737.994	0	-7
Zeharkako zergak			
EIOZa	9.607.382	5	58

Zenbateko handieneko eskubide aitortuak hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioari dagozkio. 29,61 milioi euro dira, eta 2017arekin alderatuta ehuneko bateko igoera gertatu da. Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren tasa 2017an 0,3826 izatetik 2018an 0,3853 izatera igo da.

Garrantziaren araberako hurrenkeran, ondotik honako hauek datoz: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 9,91 milioi; jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 8,99 milioi, eta lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga, 6,21 milioi.

Bereziki aipagarriak dira honako alderdi hauek:

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ehuneko 84 handitu izana 2017arekin alderatuta (3,57 milioi euro gehiago), Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen abenduaren 27ko 19/2017 Foru Legeak 2018an hartu zuelako indarra, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko ekaineko epaia betetzeko.

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zeharkako zergak % 58 egin zuen gora (3,53 milioi gehiago).

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,3853	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,8000	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32 eta 1,40 bitarte	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	23	8-25
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	10, gehienez
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	0,50 eta 1,50 bitarte	0,25-1,5





Iruñeko udalerrian, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legean jasotakoetatik zenbait inguruabar gertatzen dira, ponentzia berri bat onetsi ahal izateko; izan ere, azken berrikuspenetik 20 urte iragan dira eta aldaketak gertatu dira lurraren erabilera- eta aprobetxamendu-baldintzetan, Ganbera honek behin eta berriz gomendatu izan duen bezala.

Diru-sarrereren hurrengo partiden lagin bat hartu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako aitortuak	Kobrantsak (%)	2018/2017 aldea (%)
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	6.210.718	86	84
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA	9.607.382	73	58

Halaber, Tributuak Ikuskatzeko Planaren arloko jarduketak eta emaitzak berrikusi dira, bai eta balorazio-ponentziaren egoera ere.

Egindako lanean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailen arabera egin direla. Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

- 2016ko ekitaldian, balorazio ponentzia partzial bat onetsi zen, hura udal planaren zehaztapenei egokitzeko. Azken hirigintza-garapenetan eraikitako 9.010 etxebizitzatan (gutzizkoaren ehuneko 10) zuen eragina. Balio horiek 2017ko eta 2018ko likidazioetan aplikatu dira. Oraindik ere ez da ez izapidetu ez onetsi gutzizko balorazio-ponentzia bat, zeinak balioak gaurkotu eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean lurraren kontribuziorako ezarritako zerga-tasa bakarra egokituko dituen.

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatu egin da, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko ekaineko epai baten ondorioz; horren bidez, izan ere, konstituzio-kontrakotzat eta deuseztat jotzen dira Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen artikulua batzuk, eta horren ondorioz deusezak dira balio-gehikuntzarik ez dagoen transmisioetan egindako likidazioak.

Epai horrek eragin du lege-aldaketa bat egin dadila; hain zuzen ere, abenduaren 17ko 19/2017 Foru Legearen bidez gauzatu zena. Berritasuna da, funtsean, ez dela zergarik ordaindu behar subjektu pasiboak balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen duen kasuetan. Halaber, hartan denbora-eremua arautzen da eta likidazio-dataren arabera eta likidazio hori irmoa izatearen ala ez izatearen arabera aplikatzekoak diren arau desberdinak ezartzen dira, 2017ko bigarren sei hilekoan egindako eragiketetarako ez ezik, 2018ko urtarrilaren batetik aurrera sortzen direnetarako ere.

Konstituzio Auzitegiaren epaiak berekin ekarri zuen ziurgabetasun juridikoak eragin zuen 2017ko ekainetik aurrerako likidazioak geraraztea; zehazki,





balio-gehikuntzarik ez egotea aurreikusten zirenak. Geroztik, lege berriak indarra hartzearekin, honako jarduketa hauek egin ziren:

a) 2017ko bigarren seihilekoko eragiketak likidatu ziren, zeinak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak balio gabetu baitzituen aurrerago, 2018ko martxoan. Gaur egun, Auzitegi Gorenak horri buruzko erabakia hartzearen zain gaude.

b) 2018ko eragiketak horren arabera eta erregulartasunez likidatu ziren.

- EIOZaren aldeak, berriz, zor zaizkio 2018an diru-zenbateko handiko obrei dagozkien zazpi espediente egoteari.

- 2018an egindako ikuskapen jarduerak 0,83 milioi euroko diru-sarrerak eka-ri dizkiote Udalari; horietatik, 0,69 milioi euro kobratu dira, hau da, ehuneko 83. Bestalde, adierazten dugu ikuskatutako diru-sarreraren ehuneko 81 EIOZetik datozela.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta beste diru sarrera batzuek udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 15 egin zuten, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Diru-zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Diru-sarrerak	Aldea (%) 2018/17
Tasak	22.642.798	11	3
Salneurri publi- koak.	983.473	0	3
Bestelako diru- sarrerak	7.276.347	3	2

Bestelako diru-sarreraren hurrengo partiden lagin bat hartu dugu:


Kontzeptua	Diru-zenbatekoa	Aldea (%) 2018/17
Zerbitzu publikoetako enpresen aprobetxamendu bereziak	2.881.151	-5
Hirigintza-lizentziak	969.226	55
Berandutze eta geroratzeen interesak	515.704	120
Premiamendu-errekarguak	729.091	12

Halaber, berrikusi da udal tasetan ezarritako zenbatekoei eusten dieten kos-tuen azterlanari dagokion egoera.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa aplikatzekoa den araudiaren arabera egin direla; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu berezi-enganatiko tasak arautzen dituen udal-ordenantzak, kudeaketa-araubide orokor gisa, enpresek autolikidazioa egitea eta tasa hiru hilean behin ordaintzea aurreikusten du; hala ere, enpresa horiekin hitzarmenak egiteko aukera aurreikus-ten da, ordainketa-epe eta -formula desberdinak ezartzeko. Era berean, Nafa-





rraoko Udal eta Kontzejuen Federazioak (aurrerantzean, NUKF) enpresekin dituen hitzarmenei atxikitzeko aukera jasotzen da, haren kudeaketa eta bilketa errazteko.

Udalak 30 enpresari bidali dizkie ordainagiriak; horietatik 12 NUKFaren bidez izapidetzen dira, eta 18 zuzenean udalarekin. Kobrantza guztietatik, ordenantzan aurreikusitako hiruhilekoko aldizkakotasunari dagokionez, honako hau ikusten da:

a) NUKFaren bidez kudeatzen diren diru-sarrerak hiruhileko maiztasuna betetzen dute.

b) Diru-sarrerak zuzenean udalarekin kudeatzen dituzten 18 enpresetatik zortzik ordainketa epeak betetzen dituzte, eta gainerakoek ez dituzte betetzen, eta diru-sarrerak aldi desberdinetan egiten dituzte, baita haiek metatuz ere.

Lau enpresa handiren lagina hautatu da, eta honako hau ikusi da:

a) Diru-sarrerak zuzenean udalarekin kudeatzen duten enpresetako bik ez dute autolikidaziorik aurkezten, baizik eta hiru hilean behingo aitorten bat, Udalak baliozkotzat ematen duena. Ondoren, Udaleko zerbitzuek autolikidazioa egiten dute, nahiz eta, ordenantzetan ezarritakoaren arabera, zerga-betebehar hori enpresei dagokien.

b) Prozedura horren bidez, Udalak berandutze-interesak aplikatzen ditu, baina ez du errekar gurik ezartzen epez kanpoko aitortenagatik, ordenantzak ezartzen duen bezala.

Bestalde, nabarmendu nahi dugu ez dagoela kontrol-prozedurarik bermatzen duenik enpresek aurkezten dituzten diru-sarreraren aitortenak zuzenak direla eta tasa hori ordaintzera behartuta dauden udal-mugarteko enpresa guztiek deklaratzeko dituztela.

- Hirigintza-lizentzien tasen zenbatekoa aldatu egin da, batez ere obra-lizentzien kopuruak gora egin duelako. Obren ugaritzeak ere bere eragina izan du aurretik aztertutako EIOZean.

- Tasen eta prezio publikoen zenbatekoaren euskarri den kostuen gaineko kalkulua 2000ko ekitaldian ezarritako sisteman oinarrituta dago. Ganbera honek 2007ko Udalaren Kontu Orokorraren txostenean udal horren metodologian aurkitutako zenbait ahultasun jarri zituen agerian; honako hauek, hain zuzen:

a) Erabilitako kalkulu-sistema.

b) Urteko eguneratzea, tasa eta prezio publikoen KPIaren oinarriaren gainekoa.

c) Eguneratu gabeko antolaketa-egitura.

Udala egiturazko errealitatera egokitutako kostu-zentroen mapa definitzeko prozesuan dagoen arren, gaur egun prozedura berarekin jarraitzen da, eta ho-





rrek esan nahi du prezio publikoak edo tasak aldatzeko irizpideak erabiltzen jarraitzea kostuen azterketa egoki eta eguneraturik egin gabe.

Gure gomendioak:

- *Enpresei eskatzea lurzoru publikoaren aprobetxamendu bereziengatiko tasan autolikidazioa egin dezatela, hori zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresen zerga-betebeharra baita. Epez kanpo aurkeztuz gero, ordenantzan aurreikusitako epez kanpokotasunagatiko errekgua eskatu behar da.*

- *Ikuskapen-planetan sartzea udal-mugar-tean zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek aitortutako diru-sarrerera gordinei buruzko egiaztapena, eta tasa hori ordaintzera behartuta dauden enpresa guztiek dagozkien autolikidazioak egitea.*

- *Balorazio-ponentzia berri bat behin betiko onestea, katastro-balioak aldatuko dituen, lehendik daudenak gaurkotuz.*

- *Kostuen metodologia behin betiko onestea, horren bidez tasa eta prezio publikoak kostuaren arabera ezarri ahal izateko.*

VI.5.8. Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 102,1 eta 0,86 milioi euro egin zuten hurrenez hurren, eta diru-sarrerera guztien ehuneko 50 dira.

Aurreko urtearekiko alderaketa-datuek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2018/2017
	2017	2018	
Transferentzia arruntak	98.104.548	102.069.730	4
Kapital-transferentziak	294.145	863.580	194

Kapital transferentziak ehuneko 194 igo dira, Nafarroako Gobernuak transferentzia-eskubide gehiago onartu dituelako 2017arekin alderatuta.

2018an milioi bat eurotik gorako zenbatekoengatik jasotako transferentziak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak, 2018	Transferentzien bitarteko diru-sarreraren guztizkoaren gainean (%)	Aurrekontuko diru-sarreraren guztizkoaren gainean (%)
Nafarroako Zerga Ogasuneko zergetako parte-hartzea	58.348.078	57	28
Hiriburutza agiria	24.663.169	24	12
Eskubide pasiboen finantzaketarako ekarpena	7.464.872	7	4
Nafarroako Gobernua: oinarritzko gizarte zerbitzua eta berdintasun politikak	4.540.655	4	2
Nafarroako Gobernua: gizarte enplegua	2.066.469	2	1
Nafarroako Gobernua: haur eskolak	1.790.668	2	1





Transferentzietako partiden honako lagin hau berrikusi dugu:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Transferentzia arruntak	
Nafarroako Gobernua: gizarte enplegua	2.066.469
Nafarroako Gobernua: haur eskolak	1.790.668
Nafarroako Enplegu Zerbitzua, bestelako dirulaguntzak	413.480
Hainbat dirulaguntzaren egoera	597.332
Kapital-transferentziak	
Nafarroako Gobernua, hainbat dirulaguntza	625.036
Hirigintza-jarduketengatiko bestelako aprobetxamenduak	48.233
Europar Batasunaren dirulaguntzak	190.311

Aurrekontu-informazioaren eta Foru Komunitateko Administrazioaren arteko koherentzia egiaztatzean oinarritu da berrikuspena, bai eta horien euskarri diren administrazio-egintzen koherentzia egiaztatzean ere.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu, oro har, aitortutako eskubideen likidazioa justifikatuta dagoela aplikatu beharreko araudiaren arabera.

VI.5.9. Ondare bidezko diru-sarrerak

2018an, ondare bidezko diru-sarrerak 2,76 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko bat egin zuten.

Honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Diru-zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Diru-sarrerak	Aldea % 2018/17
Bankuetako kontu korronteen interesak	9.038	0	-69
Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak	64.367	2	0
Hiri finen eta lokalen errentamendua	752.233	27	-1
Emakidak eta kanonak	1.936.851	70	2

Jabari publikoko lursailen lurpean aparkalekuak eraikitze eta erabiltzeko administrazio-emakiden kanonak kobratu izanaren lagin bat berrikusi da. Kanon horiek aurreko ekitaldietan adjudikatu ziren, eta 40 eta 75 urte bitarteko epea izan zuten, tokiko ondare-esparruarekin bat etorritz.

Egindako berrikuspenetik, oro har, ondorioztatzen da ezarritako baldintzen arabera kudeatu dela kanonen bidezko diru-sarrera.





VI.5.10. Inbertsio errealen besterentzea

Udalaren 2018ko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzetik heldu direnak, 5,42 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko hiru egiten dute. Batez ere lurren salmenta-operazioei dagozkie, haietan etxebizitzak egiteko, bai eta indibisoak desegitetik heldutako eskubideei ere.

Salmenta-eragiketen honako zerrenda hau hautatu da:

Lurzatia	Zertarakoa	Prozedura	Zenbatekoa*
Arrosadia-Lezkairuko ARS-3ko A13C	Etxebizitza babestua	Zuzeneko besterentzea	2.297.240
ZN-1 eta ZN-2 zonetako exekuzio-unitatearen birzaitze-proiektuko lurzatiaren % 61,20. Iruñeko Udal Plan Orokorreko XIX Arrosadia unitate integratua	Etxebizitza librea	Zuzeneko besterentzea	1.414.332
Lezkairuko L.8.1 lurzatiaren % 50,28	Etxebizitza librea	Zuzeneko besterentzea	886.826

* BEZik gabeko zenbatekoak

Lursailen salmentari dagokionez, indibisoa desegitearen ondorioz, adierazi behar da ondasun higiezin bat jabekide batena baino gehiagorena bada, horietako edozeinek eska dezakeela gauza erkidea zatitzeko eta gauza hori adjudikatze hura tasazio judizialaren arabera daukan prezioagatik onartzen duen jabekideari.

Jabekideetako bat toki entitate bat bada, lege zibilek, bai Nafarroako Foru Berriak, bai Kode Zibilak xedatzen dutenaren mende egonen da. Kasu hori Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134.1.d) artikuluan xedatuaren barruan sartzen dela uler daiteke. Artikulu horrek zuzeneko besterentzearen salbuespenezko kasuak aurreikusten ditu, eta horietako bat da salmenta egiten denean legezko xedapenaren bidez aitortutako lehentasunez eskuratzeko eskubidea duenaren alde; horixe da gauza erkidearen zatiketa eskatzen duen jabekidearen kasua.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da espedienteak, oro har, toki esparruan aurreikusitako ondare-araubidearen arabera izapidetu direla. Halaber, eragiketa horien zenbatekoa diruzaintza-gerakinaren egoerari atxikitako baliabide moduan jaso da.





VI.5.11. Erakunde autonomoak

Haur eskolak

Haur-eskoletako fiskalizazioa honako hauek berrikustea izan da:

- 2018ko lan eskaintza publikoa

Egiaztatu da 2018ko lan-eskaintza publikoa egokitzen zaiela 2018rako Estatu Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako mugei.

Kontuan hartuta Udalak 2017an ez zuela gastuaren araua bete, txostenaren VI.5.3 atalean azaldu den bezala, eta aintzat hartuta zein diren lehentasunezko sektoreak eta lehentasunezkoak ez direnak, berrezarpen-tasa honako datu hauen arabera aplikatu da:

Sektoreak	Kopurua	Berrezarpen-tasa	Eskaini beharreko lanpostuak, guztira
Hezitzaileak	8	% 100	8
Erakundearen gainerakoa	2	% 75	1,5
Guztira	10		9,5
Berrezarpen-tasa gehigarria, % 5	0,05		0,5
2018ko LEPerako lanpostuak, guztira			10

Aipatu behar dugu erakunde autonomoan, udalean bezala, ez direla kontuan hartu aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriak eskaintzen dituen aukerak.

Egindako berrikuspenetik egiaztatu dugu jasotako hamar plazetatik bi ez zirela 2018ko lan-eskaintza publikoan aurreikusi behar, aurreko ekitaldian ezin baitziren benetako bajatzat hartu. Beraz, aipatutako arau-esparruaren ez-betetze bat da hori.

- Udalak erakunde autonomoa nola finantzatzen duen.

Egindako berrikuspenean oinarrituta, honako hau aipatu behar dugu:

a) Programa-kontratu bat sinatu zen, eta bertan udal-eskoletako jarduera-ildo nagusiak eta horiei dagokien finantzaketa ezarri ziren, bai gastu arruntetarako, bai kapital-gastuetarako.

b) Udal ekarpena likidatzeko prozedura bat zehazteko beharra jaso zen dokumentuan. Ez daukagu jasota prozedura horren definizioa eta onespena.

Erakunde autonomoaren auditoretza-txostenari dagokionez, eta kontratazio-arloko salbuespenei buruz egiten duen aipamenari dagokienez, gure txostenaren VI.5.1 atalera jo beharra dago.





Gure gomendioak:

- *Berrezarpen-tasak aurrekontu-araudian ezarritako mugak errespetatzea lan-eskaintza publikoetan.*
- *Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartzea lan-eskaintza publikoetan, lanpostuen behin-behinekotasuna ahalik eta gehien murrizteko.*
- *Udalaren ekarpena likidatzeko prozedura bat definitzea eta onestea.*

Hirigintzako Gerentzia

Hirigintzako Gerentziaren gaineko fiskalizazioa, honako hauek berrikustea izan da:

- 2018ko lan eskaintza publikoa.

Egiaztatu da 2018ko lan-eskaintza publikoa egokitzen zaiela 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako mugei.

Kontuan hartuta Udalak 2017an ez zuela gastuaren araua bete, txostenaren VI.5.3 atalean azaldu den bezala, eta aintzat hartuta zein diren lehentasunezko sektoreak eta lehentasunezkoak ez direnak, berrezarpen-tasa honako datu hauen arabera aplikatu da:

Sektoreak	Kopurua	Berrezarpen-tasa	Eskaini beharreko lanpostuak, guztira
Erakundearen gainerakoa	1	% 75	0,75
Guztira	1		1
2018ko LEPerako lanpostuak, guztira			1

Adierazten dugu Hirigintzako Gerentzian, Udalean eta Haur Eskoletan bezala, ez direla kontuan hartu aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriak eskaintzen dituen aukerak.

Egindako berrikuspenetik egiaztatu dugu eskainitako plaza bakarrak eskatutako baldintzak betetzen dituela, eta, beraz, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean xedatutakoa betetzen duela.

- Diru-sarrerak.

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak
Kapital-transferentziak	4.456.334

Kapital-transferentziengatik diru-sarreraren partidari, lankidetzaren bidez kudeatutako hirigintza-jarduketan urbanizazio-kuoten diru-sarrerak egozten zaizkio.





Honako lagin hau hautatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak
ARS-3 (Lezkairu) banaketa-eremua birzatzeko proiektuaren urbanizazio-kuoten 7. eskaera	1.667.804
Hirigintzako kuota Lurzatiak: L20-2 eta 3, Lezkairun*	227.609
Hirigintzako kuota Lurzatiak: L49-3 eta 4, Lezkairun*	199.684
Hirigintzako kuota Lurzatiak: A13-b.1, Lezkairun*	114.357

* Lurzatien behin-behineko saldoen likidazioei dagozkie.

Diru-sarrerak behar bezala bermatuta daudela egiaztatu dugu.

- Gastuak.

Kontratazio espediente hau aztertu dugu:

Kontzeptua	Prozedura	Esparrua juridikoa	Lizitatzailerik kopurua	Lizitazio*	Adjudikazioa*	Beherapena, %
Ana de Velasco kalearen mugan dagoen ezpona babestea eta finkatzea, eta Iruñeko udal planeko ARZ-6 ZN-10-ren urbanizazioan garajera sartzeko pasabidea eraberritzea	Negoziatua, Europar Batasunean publikizitate egin gabea	Foru Legea 6/2006	4	93.776	62.360	33,5

* BEZik gabeko zenbatekoak

Egindako berrikuspenetik, uste dugu kontratuaren lizitazioa, adjudikazioa eta exekuzioa kontratuei buruzko legeriaren arabera izapidetu direla; halere, honako hau adierazi beharra daukagu:

a) Bi ziurtagiriak legerian ezarritako 30 eguneko gehieneko epea gaindituz ordaindu dira.

Gure gomendioak:

- *Hornitzaileei ordaintzeko araudian ezarritako gehieneko epeak errespetatzea.*

Miguel Ángel Aurrecoechea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2019ko abenduaren 4an
Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga





Eranskina: Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2018ko abenduaren 31ri dagokiona

